

Jose Ignazio Ansorena

Han urrun etxe ospola

H

an urrun etxe ospola, hola, hola,
tximinitik gora kea dariola, hola, hola.
Gaintxoan arbola, zelai erdian,
erreka ospola etxe atarian,
eta tralala, eta tralala,
dena txiki, txiki, txikia, hola.



JUDIT FERNÁNDEZ

tzaletasunaren eremuan —ezkerrekoan ere bai— gorrotozko erretena sortzea. Ahal izan duen neurrian, baita euskal kulturaren ere. Eta asmo abertzaleen perzeptzioa nahastea gudan eta gizarte osoan. Azken honetarako kolaboratzaile finak izan ditu estatu eta estatusaren propagandaren aldetik.

Horregatik, besteak beste, ez dut uste ETA abertzale jendeak gobernatzen duenik. Ekintzailak ustezko abertzale fanatikoak dira, zalantzarik gabe. Bihar buruzagiak ni edo zu akabatzea komeni dela esaten badie, itsu-itsuan horixe prest betetzeko daudenak. Baina zer, nor, nola, non, noiz erabakitzen dutenek abertzaleenak ez diren beste interes batzuk dituzte.

* * *

Kaltea eginda dago. Nola lortu ahalik eta azkarren kalteak ez handitzea? Ez da lantegi erraza. Ez dut uste Espainiako gobernuak abiatutako neurririk gabeko errepresio bideak ere ezer onik ekar dezakeenik. ETAk esan eta egiten duen guztiari amen esateak ere ez. Aurrena etxekoa konpontzen hasi behar dugu. Denok, baina bereziki ezker abertzaleko jendeak berak ETArri eskatu behar dio, modu eraginkorrean, bere jardun garratza gelditu dezan.

* * *

Abertzalea... hitz ederra zen. Aberria maite duena. Ez du gorrotoaz ezer adierazten. Ni abertzalea naiz. Baita independentziazalea ere. Uste sendoa dut horixe dela bide bakarra Euskal Herriak herri gisan etorkizun ona izan dezan.

Baina abertzaleaz gainera, bestelako usteak ere badituzte bizitzan. Oinarritzkoenetako bat Txillardegik, hizkuntzaz ari zela, aspaldi formulatu zuen hobeto ezin: “Bideak erakusten du helburua eta ez alderantziz”. Nahiak ere badituzte: gizartean eta munduan *kupida lege izatea* esaterako.

Joseba Markiegi zer esango zuen ETArean aurrean? Ez dut dudarik: “Ez, horrela etxe ospola gero eta urrunago”. ■

1936ko urriaren gau batean, matxinoek Arrasateko hiru apaiz —Jose Joakin Arin, erretorea, Joseba Markiegi eta Leonardo Guridi laguntzailak— afusilatu zituzten Oiartzungo hilerriaren ondoan euskaltzale eta abertzaleak zirelako. Markiegi zen haur abesti eder eta zirrargarri honen hitzen egilea. Doinuak Emile Jaques-Dalcroze, musikaterapia eta erritmikaren aitzindari izandako suitzar musikari handia, du egile. Bere ikasle Joan Llongueresek egokitu zuen katalunierara eta hortik hartu omen zuen Markiegi *Pospolina* mugimenduaren bertsiarako.

Abesti honek, hitzen eufoniaren jolas ederraz gainera, badu alegoria tankera. Garai hartako abertzale sutsu haiek nolako etorkizuna nahi zuten Euskal Herriarentzat umetxoen erakusteko era soil bezain eraginkorra: *etxe ospola*.

* * *

Arrasaten berriro odola protagonista azken garaioan. ETAk hildako langile baten odola. Berriro entzun dugu denetarik ETakoengatik. Hitz gehiegi eta maiz desegokiro erabilia. Horrelakorik egiten duena fanatikoa da, ez du beste hitzik behar.

Zer gertatu da abertzaletasunaren azken urte luze hauetan? Nola bihurritu da bidea hainbeste? Agian pentsatu genuen ultraespainolen fanatismoa larrutik ezagutu genuelako ez zegoela arriskurik gurean horrelakorik sor zedin. Inor ez dago, baina, amildegi horretatik urruti. Israel eta Palestinako kasua adibide.

ETAk gizarteari ekarri dizkion kalteak ugari eta handiak dira. Biktima zuzenei aurrenekoak noski. Baina abertzaletasunari ere erruz ekarri eta ekartzen dizkio. Lortu du aber-

gure
arteak
euskaraz

